

YAKIN

(PRO MANUSCRIPTO)

10'gna. A R A N T Z A Z U'n - Udarakoa - 1959

EUSKALTZAINDI. — ARI —

Gidari zaitugu. Ortarako jaio zifian; ortarako sortu zintugun euskaldunok. Euskera zaitzaille izan, euskeraren erroak sendotu ta euskal-idazleai mugarriak ezartzeko, Etzera, noski, akatsgabea; baiña guri, zure menpekoei, zure lege ta aolkuak onartu ta betetzea dagokigu.

Ba-liteke zure bideak gustokoen ta maiteenak ez izatea; baita beti bide zuzenetik ez eramatea ere, gizenok eta gizonez egifia baitzerra; baiña inora joango bagera zurekin bakarrik joan gaitetzke: ez dugu beste gidaririk, zu gabe or-emen, bide gaiztoetan, nunai galdu ta barre-

atu egingo baikera.

Agintari guzierenak bezela, zure aginduak ere, bear bada gerekoikeria mindu egingo dute, gure pentsakerari uko egin eta makurtzera bear-tzen baigaituzte; baiña euskaldunak, burrukaldi gogor ontan, batasuna ta gidaritzza bat bear dugu, ta ori zuk bakarrik eman dezaigukezu.

Onegatik zure agiri ori pozgarri izan zaio benetan YAKIN'i. Iñork baiño bearrago dugu gazteok zure gidaritzza, ta zure lenengo ekiñaldi onen ondoren, zera gogoratu nai dizugu: "EKIN eta YARRAI". Bai, betoz norma zuzentzailleak. YARRAI zure maixutza ortan, entzun-guraz gauzkatzu-ta.

YAKIN bere amargarren alera eldu da, gazteon kezka zabaltzaille dugularik. Jainkoari esker, borondate on asko topa ditu bere bizitz-zidorretan. Zenbaki bakoitzak kimu berriak eman dizkigu: lan-sorta oparoa eskiñi diguna. Baiña, batez ere, YAKIN'i sendia ugaritu egin zaio, 52 euskal-mutil dira zugaitz gaxte onen egalpean kabiak kokatu dituztenak. Elkarrizketa-atalean ikusi dezakezu YAKIN'ek bete duen eginkizuna: ar, azter ta epaitu ezazu, oker egifñak zuzendu ta akatsak suntzi ditezen.